

EKAITZ PERFEKTUA

Ekai estimatua:

Eskutitz hau, sentimenduak larruazalean brodatu ahala idazten ari naiz. Beraz, ni ere hari izateko ahaleginean ari naiz, nere barruko mataza honi soka eman eta aldi berean, askatu nadin saiatzeko. Hurbiletik agian ez, baina gertutasunetik hitz egin nahi nizuke, nire semetxoak ere Ekai izena baitu. Eta barkaidazu bromatxoa baina zure albisteak, berria ez zen albisteak Amaia-Aimarren kasua bizi izan genuenontzako, beste ekaitz perfektu bat eragin zuen gure etxean.

Zenbat gauza ikasarazi dizkiguten hezkuntzan, azken finean, barneratu ez ditzagun... eta barneratu ez gaitezen! Eta alderantziz? Barneratu beharreko zenbat gauza ez ote ditugu ikasten? Memoriak huts egiten digu askotan baina zuk jada ongi dakizun modura, gorputzaren memoriak bere funtsa du.

Nire Ekai semetxoak 4 urte ditu, eta orain arte hamaika aldiz pentsatu izan dut bost axola zitzaidala, bere hezkuntzan eskutik 31 izaten jarraitzen nuen bitartean. Baina zure heriotzak hitzen algebra aldarazi dit orain, eta bizitza bera ez dela matematika ikasi dut, batez ere; aldagaiak pertsonak garenean. Eta hausnarketa horren baitan, aita eta amak izan beharrean "guraso" izatera soilik mugatuko bagina, pauso erraldoi bat emango genukela deritzot.

Zenbakiak gorpuzten ohitzen gara txikitatik : hainbat mutil eta hainbat neska daude ikastolako gelan, multzotan sailkatuta. Eta "haiek eta gu" bagina bezala jokutzen hasten gara hasieratik... "gu haiek" izan gintezkeela ahaztuta.

Nire semearen baitan ikusten dut *klix*e zaharrak ez errepikatzean zeinen deseroso sentitzen garen helduok: belarritakorik ez daraman neskak, panpinekin jolastea atsegin duten mutikoak eta beste hainbatek, urduri jartzen gaitu gaur egun ere... eta zuk berriz, zure barruko deserosotasuna kanporatzea erabaki zenuen, zure barne-bizitzaren hobe beharretan.

Gizarteari eta hezkuntzari, oraindik eskola batzuk hartzea falta zaizkio gizarte heziketa mailara iristeko, oraindik soilik mailakatu egiten baitugu. "Norbanakoak" hezitzetik "pertsonak" heztera alde handia dago, bigarrena kolektibotasunean egiten delako. Eta zuk zerorrek ere, Ekai, bide horretan "zu" izateari utzi gabe "zu zeu" izatea erabaki zenuen. Zintzotasuna erakutsi zenuen, obedientziarik erakutsi gabe. Aldi berean, burugabeki baina zentzuz jokatu zenuen, burutsu; zure gorputzak esaten zizunari entzunaz nahiz eta buruak agian beste arau batzuekiko obedientzia aginduko zizun. Baina zuk, zentzuz, zentzuei jarraitzea erabaki zenuen.

Protokoloak, azterketak, ikerketak, medikazioa, baremazioa... zure gorputzaren gain jarri genituen, baina agian zure larruan inoiz ere jarri gabe. Kimika gutxi erakutsi genuen zurekiko, soluzioa kimika hutsa izan zitekeela pentsatuta.

Zu garatu ahala, denbora zure aurka jokatzen hasi delako. Denbora aletu duzu etapaz etapa eta azkenik... beranduegi izan da: denbora aletze horrek denboralea ekarri du berekin, ekaitz perfektua.

Zure jarrerari ez diot adjektiborik jarriko eta agian, horrek definituko nau. Soilik esango dizut zure bizitzan mantendu duzun jokaera miresten dudala zure identitatea alboratu eta nortasun baten bila abiatu zinelako, inortasunean gelditu gabe.

Bizitza honetako arrakasta ez datzalako "norbait" izatean, "nornahi" izatean baizik.

Eta nik, nire 4 urteko Ekai ortzadarraren kolorez ziprztindutako gizarte batean hezi nahi nuke, guztiokin eta denon artean, ortzadarraren beste aldean beti bezala altxor eder bat ezkutatzen delako: aniztasuna eta errespetua.

Bidean topo egingo dugulakoan.

GURASO